



JANTOKIA

“Arautegi hau **2000ko martxoaren 22koa, hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako derrigorrezko irakasmaitetarako eta Haur Hezkuntza (2. zikloa)** jantokiak arautzen dituen aginduan oinarriturik dago”.

Jakinarazten da jantokiaren erabilera **EZ DELA DERRIGORREZKOA.**

Zerbitzu honetako **ARAUAK BETETZEA EZINBESTEKOA DA.** Horrela ez bada, eskolak autonomia dauka ikaslea edozein momentutan kanporatua izateko.

Jantokiko arduraduna: Arantza Barturen.

Gurasoekiko arreta: Goizeko 9:00 - 9:30.

Gurasoekin batzartzeko: Asteartean 11:30 – 13:30

ORDUTEGIA

Haur hezkuntzan (HH) eta Lehen hezkuntzan (LH) jantokiko zerbitzua ikasturteko lehenengo egunetik azken egunerarte eskeiniko da.

Jantokiko ohiko ORDUTEGIA 13:00etatik 15:00etara izango da.

Asteazkenean, berriz, irteera 14:45ean izango da.

ARAUAK

- 1- Ikasturte hasieran **MENU MOTA** aukeratuko da. Behin aukeratuta ezin izango da aldatu antolakuntza arrazoigatik.
- 2- Behin ikasturte hasita, **EZ DA JANKIDERIK ONARTUKO** kasu bereziak izan ezik (Matrikula berria).
- 3- **OSASUN ARRAZOAK** egonez gero (alergiak, intolerantziak, gaixotasunak...), aurretik abisua emanda, eta mediku-ziurtagir ofizialarekin bakarrik egokituko zaio menua.
- 4- Ikasleak **ARAUAK ERRESPETATU BEHAR DITU.** Momentu guztietan jantokiko begiraleei eta jantokiko arduradurari jarraibideei kasu egin beharko dizkie.
- 5- Eguneroko komunikazioan (ogia eskatzeko, amaitu dugula esateko,...) **TONO EGOKIA** erabiliko dugu.
- 6- Jateko orduan **MAHAIAN ERA EGOKIAN** jesarriko gara.
- 7- **MAHAI-TRESNAK** behar bezala erabiliko dira.
- 8- **BAZKALDU ONDOREN** jolastokira joango dira, eta hor ere begiraleek jarritako arauak errespetatuko dira.
- 9- Jantokia erabiltzen duten ikasleak derrigor egongo dira arratsaldeko klaseak hasi arte (13:00 – 15:00) eskola barruan. **EZIN IZANGO DIRA KALERA ATERA.**



KUOTAK

- a) Ikaslea, OHIKO JANKIDEA: 4,60€ /eguneko.
- b) Ikaslea, EZ OHIKO JANKIDEA: 5,20€ /eguneko.

KUOTAK ITZULTZEA

Jantokiko dirua itzultzeko, **BALDINTZA HAUEK** bete beharko dira:

- Jantokira gutxienez bata bestearen ondorengo astebetean ez joatea.
- Jantokira ez dela joango abisua ematea gutxienez 48 ordu lehenago.

Kasu hauek **BAKARRIK** kontuan izango dira **BEKADUN EZ DIREN IKASLEEKIN**, eta bueltatzen den diru-kopurua eguneko %50ekoa izango da.

Ikasturtean zehar 3 menu-orri bananduko dira:

- 1- IRAILEAN: Iraila, urria, azaroa eta abenduko menuak.
- 2- URTARRILEAN: Urtarrila, otsaila martxo eta apirila.
- 3- APIRILEAN: maiatza eta ekaineko menuekin.

**GOGORATU JANTOKI ZERBITZUA EZ DELA DERRIGORREZKOA.
IKASLEAK ARAUTEGIA BETETZEN EZ BADU, ESKOLAK ELKARBIZITZA PLANAN
AGERTZEN DEN II. ANEXOAN OINARRITUTA, NEURRIAK HARTUKO DITU.**

Zuzendaritza taldeak eta jantokiko arduradunak.